


TOKIKOM

# Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2014ko urria • 296. alea



**ELI LAKUESTA**

**60.000 argazkiko herentzia herriari**





# SORALUZE

*musika eskola*

2014ko azaroaren 22an  
**Soraluze musika eskolaren  
XXV. urteurrena**

**12:30** Musika eskolako bandaren  
kalejira

**13:00** Musika eskolako eta Ezoziko  
Amaren abesbatzen saioa

**14:30** Bazkaria kiroldegian

**18:30** Txaranga kaletik

Goizean zehar herriko toki  
desberdinetan karpa batzuk jarriko  
dira bertan musika eskolako ikasleek  
saio txikiak egiteko



# #Plaentxia.eus

Testu hau idazten hasi garen momentuan bertan, dozena erdi bat natibo digital sartu dira Pil-pilean. Bazkideei bidaliko dizkiegun gutunak prestatzera datoz, ikasbidairako xox batzuk ateratzearan truk. Facebookaren, tuentiaren, watsaparen, twitteraren eta komunikazio digitalaren garaiko gazte txoak dira. Eta jakinmina piztu zaigu. Bisitatzan dituzten webgune guztien artean zenbat dira euskarazkoak? kontsumitzen duten informazioaren artean zenbat da lokala? Eta galdera hori bera egingo bagenie interneten nabigatzen duten sorluzetar guztiei?

Horiexek izan ziren 2007an Plaentxia.com webgunea sortu genuenean lan du nahi izan genituen bi alderdiak: informazio lokala eta euskaraz. Ordu tik hona euri asko egin du, eta komunikazio digitalak sekulako jauziak eman ditu. Plaentxia.com ez horrenbeste. Zorionez, azkeneko hilabeteotan webgunea geure gustura egokitzeko behar dugun ezagutza geureganatu dugu, eta horri esker, komunikazio lokalean "puntakoak" diren dinamika berriak martxan jartzeko aukera izango dugu, besteak beste; KOMUNITATEA.

**“Herriko elkarte, alderdi, erakunde eta norbanako aktibo guztien ahotsa jasoko duen komunitate digitala osatzea da gure helburua”**

Internet zuhaitzez betetako ohian zabala da, edo, nahiago bada, galaxiaz betetako unibertsoa. Erraza da batetik bestera joatea baina baita galtzea ere. Aurkeztu berri dute euskal komunitatea ohian edo unibertso zabal horretan kokatzeko baliagarri izango den tresna: .Eus domeinua. Urtea amaitu au-



Webgune berriaren zirriborroa.

rretik, gure herriko webgune berriak ere interneten euskal komunitateak duen abizen bera izango du. Orain, gure erronka nagusia herriko komunitatearendako gunea osatzea da, herriko elkarte, alderdi, erakunde eta norbanako aktibo guztien ahotsa jasoko duen komunitate digitala.

Azpeitiko Uztartaria.com-ek aspaldi sortu zuen komunitate hori eta emaitza sekulakoa da; 250 blogetik gorako komunitatea eta azpeitiarren milaka bisita egunero. Zergatik hainbeste bisita? azpeitiarrek euren herriaren inguruan eskuratu nahi duten informazioaren parte handiena bertan aurkitzen dutelako.

Sorluzetarrok ez gara gutxiago izango ezta? Datozen asteotan, herriko komunitate digitala egituratzeko lanari ekingo diegu. Banan-banan joango gara herriko eragile guztiengana eta komunitate horretan kide nahi ditugula esango diegu. Baita euskararen ezagutzarik ez dutenei ere, itzulpen zerbitzua eskainiko diegu eta. Sorluzetar denek izango dute ahotsa herriko komunikazio plaza digitalean. Den denek. Euskaraz. Oraina euskaratik ere eraiki nahi duen herri euskaltzale bati dagokion moduan.

@PilpileanKomunikabideak

**Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Sorluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com  
**Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitate:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Iñigo Urribetxebarria **Maketazioa:** Oier Larreategi  
**Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskaraz bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA



SORKALDUKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## Gutunak

DBHko  
institutua

### Baratza zaindu, mesedez

Eskolan baratzetxoak jarri genuen martxan iazko ikasturtean. Poliki-poliki ari da indarra hartzen eta hor gabiltza lanean hainbat barazki eta landare landatzen. Ikasleak gustura ibiltzen dira eta lana hartzen dute landaketetan. Baina azken aste hauetan, asteburuan, astean zehar egindako lanak hondatzen dizkigute. Ostiralean sartutako tipula eta porruak atera, kaputxina eta azaharra bere lekutik atera, aloebera moztu...

Hori dela eta, ekintza hauen aurrean herritarroi zuen laguntza eskatzen dizuegu, ahal duzuen egin dezazuen gure landaketak ez izorratzeko.

Gipuzkoako  
"Fracking" Ez

### Ehun Mila Esker

103.589 esker zehatzagoak izateko.

Hautura hidraulikoak dakarren mehatxuari, urratsez urrats, aurre egiten jarraitzen dugu.

"Fracking" a debekatu dago Iparraldean, debeku bera onartua Nafarroan, eta orain EA Eren txanda heldu da.

30.000 sinadura behar ziren Herri Ekimen Legegilea aurrera ateratzeko. Kopuru horren hirukoitza batu eta gero, pozik gaude. Herritarrok babes handia eman diogu ekimenari, eta pozgarria da hori.

Ekimena abiatu aurretik Gipuzkoan ez geneukan horren inguruko gutxieneko azpiegiturarik, eta ezjakintasuna zen nagusi.

Hala ere, tarte labur honetan gauza asko lortu ditugu. Informazioa zabaltzen hasi da, hainbat udalek "Fracking gabeko eremu" izendatzeko mozioak onartu dituzte, 21.295 sinadura batu ditugu, eta lantaldeak hedatzen doaz lurralde osoan.

Ekimen Legegilearen ibilbidea, une honetan, legebiltzarkideen esku dago. Baina herritarrok adi jarraituko dugu desitxuratu edo atzera bota ez dezaten. Gizarteak ez du horrelako iruzurrik onartuko.

Aitzakirik gabe, Legebiltzarrak eta Jaurilaritzak badute nahikoa tresna herritarren osasuna eta borondatea defendatzeko, Gobernuak eta Konstituzionalak jarritako oztopoen gainetik.

Ez gaude bakarrik, elkarlanean ari gara kaltetutako beste lurraldeetako eragileekin. Arro eusko-kantaurriarreko plataforma guztiak bildu berri gara oso emankorra izan den kanpaldi batean. Elkartasunez, txikizio horri nola aurre egin landu dugu.

Lana ez dago amaituta, oraindik badago informazioa gehiago zabaltzeko premia, lantaldeak indartu eta gehiago sortzeko beharra, mobilizazioak ere egin beharko ditugu.

"Fracking" a gelditzea geure esku dago eta lortuko dugu, baina horretarako denon premia dago.

Gure ura, lurra eta osasuna defendatuko ditugu.

## Bittartetik



Juan Carlos  
Astiazaran

### Soraluzetarrok bereziak gara?

Mundua gero eta berdinago den honetan, soraluzetarrok herri identitate gortetzen ei dugu oraindik: behin eta berriz entzuten ari gara "Gezurra emoten du halako herri ziztrin batekin horren harro egoteak" moduko esaldiak.

Bizitzan aurrera egiteko ez da suerte makala halako sena izatea. Ez gara besteok baino gehiago, ezta gutxiago ere, baina gure "ikutua" daukagu... ala ez? Zertan gara bereziak? Nondik igartzen zaigu soraluzetarrok garela?

Ildo horretatik, Soraluze Alkarrekin ekimenak hausnarketa martxan jarri du: herri identitatea nola indartu.

Eta azken asteetan horren inguruan dihardugu: herriaren izaeraren nondik norakoak aztertzen, soraluzetarren harrotasunean eragiteko moduak...

Agian, armagintzak egin gaitu garena, nekazaritza pobreak herrian aberastan iturri berria sortuz?

Edo, atzerago joanaz, historiaurretik datorkigu sen berezi hau? Indarrak elkartuz proiektu itzelak aurrera eramanez, Arribiribiletako zutarrak lekuko. Ala umorean datza gure gatza? Gauzak modu bakarrean ikusi beharrean, gauzei hainbat ikuspuntutatik begiratzeko trebezia daukagu?

Horretaz guztiaz ari gara, gero proiektuak asmatzeko: daukaguna eta dakiguna bildu eta erabili, soraluzetarrok iraganaz harro, orainaz pozik eta etorkizunaz eraginkor izateko.

Eta zuk, zer uste duzu zuk? Zertan gara bereziak soraluzetarrok? Zerk merezi du indartzea? Ez gorde zure ideiak, eta idatziezaguzu [alkarrekinsoraluze@gmail.com](mailto:alkarrekinsoraluze@gmail.com) helbidera.





**Loli Nieves García**

Santa Ana, 13 • SORALUZE  
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659  
E-mail: [mdnievas@mgs.es](mailto:mdnievas@mgs.es)  
[www.mgs.es](http://www.mgs.es)



# “%100 jatorri berriztagarria duen argindarra soilik eskaintzen dugu”

**Alex Lopez (1973, Zarautz)**  
GOIENER kooperatibako bazkide eta komunikazio koordinatzailea



Alex Lopez, GOIENER-eko bazkide eta komunikazio arduraduna

GOIENER energia kooperatiba zer den eta zein helburu dituen azaltzera dator Alex Lopez zarautzarra, azaroaren 3an, 19:00etan kiroldegiko erakustaretora. 2012an energia berriztagarrien erabilera sustatu eta merkatu elektrikoaren inguruko eztabaida bultzatzeko sortu zuten 32 bazkidek GOIENER. Egun, 2.200 baino gehiago dira eta goraka doa.

## Zer da GOIENER?

Herritarrez osatutako euskal energia kooperatiba bat gara, irabazi asmorik gabekoa. %100 jatorri berriztagarria duen argindarra soilik erosten dugu merkatuan, eta ondoren gure bazkideei garraiatzen diegu. Komertzializatzaile handien aurrean aukera bat gara, eta ez dugu hazkunde ekonomikoa defendatzen, Euskal Herriko garapen ekonomikoa baizik. Horrek esan nahi du GOIENER-ek ez duela dirurik irabaziko? Ez. Horrek esan nahi du GOIENER-ek irabazten duen dirua berriztagarrietan inbertitzeko erabiliko duela.

**“Energiaren erabilera eta kontsumo arduratsu eta iraunkorra bultzatu nahi dugu”**

## Nortzuk osatzen duzue?

Gure bazkideen artean, norbanakoak, enpresak eta erakundeak daude, 2.200

guztira. Kooperatiba izanik, berdin dio zein den zure kontsumoa edo diru ekarpena, bazkide bakoitzak boto bat du asanbladan.

**“Etxean ez da inongo instalaziorik egin behar”**

## Epe motz-ertainean, zein helburu dituzue?

Euskal Herrian burujabetza energetikoa lortzera bidean tresna bat izan nahi dugu, eta sare sozial trinko bat eraiki, euskal gizarteko aktore ahalik eta gehienekin. Burujabetza energetikoa ez da bakarrik energiaren gaineko kontrola izatea, erabilera eta kontsumo arduratsu eta jasankor bat egitea ere bada. GOIENER-ek horretan eragin nahi du.

## Prezioen aldetik, garestiagoa da berriztagarria dena?

Ez. Batz bestekoaren azpitik gaude, kasu gehienetan berdin edo gutxiago ordainduko duzu.

## Orduan, zergatik enpresa handiek ez dituzte berriztagarriak erabiltzen?

Energiaren salneurria jaisten dutelako. Adibidez, edozeinek jarri ditzake eguzki plaka batzuk bere etxean eta energia propioa ekoiztu; soberakinik badu sarera bota eta falta bazaio bertatik hartuko du. Eskema hori ez zaie interesatzen enpresa handiei, orain duten

kontrola eta etekin ekonomikoak galduko lituzketelako.

## GOIENER aukera moduan kontratatzea nahi duenak nola egin dezake?

Bazkide egiteko 100 euro ordaindu behar dira, baina nahi duzunean utz dezakezu kooperatiba eta 100 euroak itzuliko zaizkizu. Etxean ez da inongo instalaziorik egin behar, eta izen-ematea internet bidez egin daiteke, [www.goiener.com](http://www.goiener.com) helbidean, edota fisikoki Ordizian eta Gasteizen ditugun bulegoetan. Argiaren azken faktura aurkeztu eta kooperatiba arduratuko da gainontzeko guztiaz.

**“Nahi duzunean utz dezakezu kooperatiba eta 100 euroak itzuliko zaizkizu”**

## Mesfidati daudenei zer esango zenieke?

GOIENER ez kontratatzeko arrazoiak aipa diezazkieket: salneurri on baten bila baino ez badabiltza, ahaz daitezela. GOIENER ez da komertzializatzaile huts bat, GOIENERREK merkatu elektrikoa aldatu, eta, finean, gizartea aldatzeko tresna bat izan nahi du, bazkideak horretan aktiboki parte hartzera bultzatu nahi ditu.

**ALKARREKIN**  
soraluze eginez



## ONTZIRATU ZAITEZ

**Urriko irabazleak**  
- Arantxa Gabilondo - Eleuteria Ordax

**Saria:** 25€ herriko komertzioetan gastatzeko  
**Oharra:** Abendura bitarte hiler 25€ko bi sari zozketatutako dira





## Zaborra batu eta ibaiko ura aztertu dute



Ibaia garbitu zuen boluntario taldea

Plaza Zaharretik Gaztetxe aldera eta Ezoz Etorbidetako errotondaraino garbiago dago orain, Deba ibaia. Ume, gazte eta heldu, berrogei lagun inguru batu ziren aurreko zapatuan ibaia garbitzeko saioan, eta, guztira, 1000 litroko hiru zaborrontzi bete zituzten. Jasotakoa "batez ere, etxeko hondakinak dira, eta ez

hainbeste industrietako zaborra" ondo-rioztatu zuten parte hartzaileek. Zaborra batu ez ezik, ibaiko biodibertsitatea eta uraren kalitatea ere neurtu zituzten, eta 25 metroko eremuan dozena-erdi ibaiko karramarro aurkitzeaz gain, ezkailu arrain (*Phoxinus phoxinus*) ugari ikusi eta gaztetxoek paitta arrautza bat ere topatu zuten.

### Ibaiak kolore eta bizi-kalitate ona du

Garbiketa saioaren ostean Zero Zabor taldekoen eskutik ibaiko uraren azterketa kimikoa egin zuten, kalitatea neurtzeko. Horren arabera uraren pHa 8 puntukoa da, nahiko neutroa ondo-rioztatu zutenez "nahiz eta Gatzagakoa baino alkalinoagoa izan, Gatzagako uraren pHa 7 puntukoa da, neutroena hain justu". Parte hartzaileen esanetan ibaiaren kolorea eta bizi-kalitatea onak dira, "usainak jarraitzen du izaten Deba ibaiaren punturik ahulena".

### Egurrezko eskua eta Donostiara autobusa

Gure esku dagok egurrezko eskua ka-lean jartzeko ekitaldia antolatu du domeka eguerdirako. Jaberren harategi parean dagoen orubean kokatuko dute maiatzeko jaialdian egindako egurrezko eskua. Ekitaldia 12:30ean hasiko da eta adierazpen bat irakurri ondoren, dantzari eta bertsolariek ere parte hartuko dute. Bestalde, azaroaren 8an Donostiako Zurriola hondartzan 11:00etan egingo den mosaiko erraldoira joateko autobusa ere antolatu dute, mosaikoa amaitu eta berehala buelta egiteko intentzioarekin. Izena emateko orriak daude Gaztelupen, Gaztetxean, Bolian, Batzokian, Arranoan eta Iratxon.



### Udal-tasak izoztu eta birziklatzen dutenentzat hobariak

Aurten KPI-ak indize negatiboa eman duela eta, 2015. urteko zergak ez igotzea eta bere horretan izoztea onartu zuten urriko udalbatzarrean, Bildu eta PSE-EE alderdien aldeko 6 bozka eta EAJren abstentzioarekin. Bestalde, hondakin organikoak bereizteko bosgarren edukiontzia erabili edo konposta egiten duten herritarrek, %3tik %10 arteko hobariak izango dituzte; hondakin organikoak edukiontzi marroian batzen direnez, 6.623 euro gutxiago ordaindu beharko baitizkio udalak mankomunitateari. Azkenik peatonalizazioa dela eta, terrazak egun osoan jarri ezin dituzten tabernariak ere %20ko hobaria izango dute tasak ordaintzerakoan.

### FotoNotizia



### TAIKO, danbor japoniarren hotsak Karakaten

Isabel Romeo SEIWA TAIKO taldeko sortzaile eta partaideak danbor japoniarrak jotzen ikasteko tailerra eskaini zuen urriaren 18an, Karakaten. Ikastaroan zortzi lagunek hartu zuten parte eta eguzki-giro epelaren konpainian golpeak nola jo, eta errimak eta eritmoak nola eraman ikasten aritu ziren, besoak erabat nekatu zitzaizkien arte.



## Sabino Cuadraren hitzaldia

Azaroaren 17an, astelehenez, *Arrojado a los leones* liburua aurkeztuko du Sabino Cuadrak. Abokatu eta sindikalistak Amaiur taldeko diputatu moduan Madrilen izaten ari den esperientziaren berri emango du: "gorteko pribilegioak, trikimailuak, miseriak..." kontatuz. Aurkezpena udaltxeko batzar aretoan egingo da eta arratsaldeko 19.00etan hasita ordu erdi inguruko iraupena izango duela aurreikusi dute. Aurkezpenaren ostean, nahi duenak liburua erosteko aukera izango du. Hala jakinarazi du hitzaldia antolatu duen Harrera elkarteak.



## Odol-emaileei merezitako omenaldia

25,40 edo 50 aldiz odola eman duten Debabarreneko eta Debagoieneko odol-emaileak omendu zituzten urriaren 25ean Eibarren, tartean sei soraluzetar: Juan Alberdi, Inmaculada Matute, Maria Jesus Rodriguez, Ana Mari Eguren, Mari Carmen Rodriguez eta Abel Olaizola. Brontzezko edo urrezko domina bana jaso zuten, Gipuzkoako odol-emaileen elkartearen eskutik.



## Liztor beltzaren aurka

Liztor beltzaren bost habia pozoitu zituzten atzo herrian. Urtea hasi zenetik, Debabarrenean 80 inguru kendu dituzte eta 700 bat Gipuzkoan. Teknikariek uste dute datorren urtean egoerak okerrera egin dezakeela.



Debemeneko teknikariak Txarako habiaren azpian.

Gila osteko Txaran eta herriaren erdiguneko beste hainbat lekutan habiak azaldu direnean, zabaldu da herrian liztor beltzarekiko kezka. Debemeneko teknikariek hilabete batzuk lehenago ikusi dute zela ari den liztorra gero eta gehiago zabaltzen. "Denera zabaldu da eta orain astero-astero egin behar izaten ditugu irteerak" diosku Debemeneko teknikariak. Azkeneko astean bakarrik, hamaika habia kendu dituzte Debabarreneko herrietan.



### Protokoloa

Herritarrek parte ematean jartzen da martxan protokoloa. Habia dagoen lekura joan eta liztorrak hiltzeko erabili beharreko sistema aukeratzen dute. Pozoitu egiten dituzte pertikarekin

heltzeko aukera duten kasuetan, eta suzko armekin tirokatu pertikarekin heltzeko urrunegi daudenean. Bi egunen buruan liztor denak hiltzen ei dira, ugaltzeko ahalmena duten erreginak barne. Babes-neurri zorrotzak hartzen dituzte, "liztorrek pozoia jaurti edo hainka egin dezakete, hainbat aldiz, pertsona hiltzeraino". Normalean ez ei dute erasotzen baina "habia ukituz gero oso arriskutsuak dira".

### Kalte izugarria

Jatorri asiarrako liztor beltzak ez du oraingoz aurkari naturalik inguru hauetan. Hori dela-eta, neurri barik ari da ugaltzen eta Debemeneko teknikariaren esanetan izugarria da ekosistemari eragiten ari zaion kaltea. "Inguruko erle guztiak jaten ari da, horrek polinizazioarendako dakarren arriskuarekin". Teknikariak ezkor dira, "ahalegin berezirik egin barik horrenbeste habia azaldu baldin badira, batek daki zenbat egon daitezkeen mendian. Neguan habiak laga eta lur azpian gordeko dira eta ikusiko dugu udaberrian zer gertatzen den".

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Javier Alonso Zelaia  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



## Gaztañerre azoka: herrian ekoiztutakoaren erakusleiho



Carlos de Cosek azokan ateratako irudia

Azaroaren 8an ospatuko da aurten XIX. baseritar, nekazari, abeltzain eta artisauen azoka. 22 postu jarriko dituzte aurten, bederatzi baserrietako generoena eta hamahiru artisauena; guztiak herrian ekoiztu edota hazitakoekin. Korta baserriko Maria Lizarralde eta Sologuen gaineko Jose Larrañaga izango dira aurten omenduko dituzten baserritarrak.

### Tailerrak, kalejirak, herri kirolak eta bajana

Azoka ez ezik, baserri bizitzari lotutako egitarauak beteko du eguna. Kukumixoko hezitzaileek "Baserria eta animalia" sormen tailerra antolatu dute, ondoren hasiko da txistularien kalejira eta gaztetxeak herri-kirol desafioa antolatu du 11:00etan. Bertsolarien saioa eta Urratsekoen dantzaldia 12:30etan izango da eta bazkaltzeko bi aukera daude: karpan edo gaztetxean. Bietan babakizango dira menuko protagonista. Erromeriarik ere ez da faltako, Xero Xiettek girotuko du arratsaldea karpan, Fun and Gok gaztetxean.

### Bi asteko egitaraua prestatu dute

Ohiko den moduan, Gaztañerre ez da eguna bera edo azoka eguna ospatzera mugatzen, aurten bereziki anitza da, gainera, prestatutako egitaraua. Azaroaren 3an, GOIENER kooperatiba subiranotasun energetikoaz arituko da, Sean Pileanek talo ikastaroa eskainiko du eta egun berean Eli Lakuesta argazkilariaren liburua aurkeztuko du Kontrargik. Gainera, tabernariak egunerako pintxo-pote tematikoa prestatu dute.

### Gaztañerre eguna, azaroak 10

Plaentxi Herri Ikastetxeko ikasleek baserri eta baratzaren apainketa lanak ikusgai jarriko dituzte, astelehenean, Gaztañerre egunean eta Pil-pileanek kantu-jira eta afaria ere antolatu ditu. Azaroaren 11n erleen inguruko mahaingurua egingo da eta azaroaren 15ean, zapatuan, Bizikalek bere produktuak erakusteko azoka antolatu du. Iluntzean pintxo lehiaketa ere egingo dute, tabernariak eta merkatariak elkarlanean.

### Misio Taldeak Marbial herriari laguntzeko postua jarriko du Gaztañerretan

Haitiko Marbial herriko eskolan, lehen eta bigarren hezkuntzarako ikasgelak eraikitzea eta ikasgela horiek mahaiz eta aulkiz hornitzea izango da datozen bi urteetan Misio Taldeak aurrera eramango duen erronka. Zehazki, herrialde horretan baliabiderik gabe bizi diren umeen eskolatzea bultzatu nahi dute eta 35.000 euro behar dituzte proiektua finantzatzeko. Oñatiko Misio Taldearekin elkarlanean arituko dira eta ohikoa den bezala, Gaztañerre azoka egunean etxean egindako gozoak saltzen ekingo diote dirua batzeari. Kontzejupean jarriko dute postua goiz osoan zehar. Soraluzetarrei aurrez eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiete eta ahalik eta gehien lagun dezatela eskatu.



### Nagusien egoitzak Gaztañerre Eguna ospatuko du

Azaroaren 10ean, herriko helduenek ere egun osoko egitaraua dute prest Gaztañerre ospatzeko. "Gaztañerre azoka Soraluzen" izenburupean, hitzaldi gastronomiko-kulturala izango dute lehenengo. Hamaiketarako sagardo, eta, gazta dastatzea antolatu diete eta ostean, bazkari berezia izango dute egoiliar guztiek. Kantu-jaiak alaituko du bazkalostea eta, ostean, hasiko dira danbolinean gaztainak erretzen. Iluntzeko gaztaina dastaketak borobilduko du eguna.

**ARMENDIA**  
**JATETXEA**

Ezozí Auzoa 11  
20590 Soraluze  
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA  
TRADIZIONALA

**Soraluzeko  
Kooperatiba  
Elkartea**

1910etik

943 75 13 45



## Iritzia

Unai  
Larreategi

## Bagoaz?

Hasi gara herritarren artean Soraluze biziberritzen. Alkarrekin Soraluze Eginez prozesuak herritarrok zer nolako herria nahi dugun pentsatu eta egiteko dugun gaitasunean sinetsarazi eta motibatu gaitu. Eta ez hori bakarrik, herria biziberritzeko nahia ere agerian laga du.

Baditugu proiektuak. Badugu zer egin. Eta bagara batzuk taldeetan antolatu eta ilusioz lanari ekin diogunak. Baina sinetsita gaude gehiago ere izan gintezkeela. Badakigu elkarlanak, lankidetzak, eskuz esku lanean aritzeak motibatu egiten duela. Gure ideiak garatzeko aukera ematen duela. Autoerrealizatuta sentiarazten gaituela. Harreman berriak sorrazten dituela eta herria kohesionatzen duela. Komunitatea indartuz sentimendu komunitarioa hazi eta bizikidetzaz sentotzen dela.

2015erako erronkak zehaztu nahi ditugu orain. Eta horretarako zita garrantzitsua dugu azaroaren 22an. Alkarrekin batzar orokorra ospatuko dugu. Bertan, hainbat gunetan banatutako hizlarien bidez proposatzen diren proiektuak ezagutu eta ekarpenak egiteko aukera izango dugu gustu dugun herritar guztiok.

Zure ideiak esan, guztion artean erabaki eta guztion artean egin. Eraikitzen eta biziberritzen jarraitu dagigun Soraluze alkarrekin. Hau hasi besterik ez da eta egin.

Soraluzetar oro gara beharrezko erronka honetan. Eta zu ere gonbidatu nahi zaitugu batzarrean parte hartu eta zure ekarpenak egitera. Guztion ideiak dira beharrezkoak.

## Alkarrekin: proiektuen ordua

Azaroaren 22an, zapatuan, Alkarrekin Soraluze Eginez prozesuaren Batzar Orokorra egingo da Kiroldegian. Batzarrean, proiektuetako kideek eta udaleko teknikariek datorren urterako prestatu dituzten egitasmoak aurkeztuko dituzte.



Alkarrekinen lan-talde bat, eztabaidan

Udalak Batzarra "mugarri" izatea nahi du, "herritar kopuru esanguratsu baten datorren urtean landuko diren egitasmoetan partaide izatea, ezagutza zabaltzea eta iritzia trukatzeko pauso garrantzitsua da herriarendako". Batzarrean edozein herritarrek parte hartu dezakeela adierazi dute.

## 15 Proiektu mahai gainera

Guztira hamabost proiekturen ekimenak aurkeztu eta eztabaidatu ahal izango dira: herri identitatea; ibaia eta mendia; talde sozial eta kulturalen interakzioak; jarduera fisikoaren praktika, kontsumo ohitura jasagarriak; herritarren arteko elkartasuna, bertako produktuen ekoizpen eta kontsumoak; enpresa zein merkatariekin elkarlan dinamikak; berdintasun plana; euskara plana; hezkuntza; irisgarritasun plana; hirigintza plan orokorra; energia plana eta smart herria.

## Egitaraua

- 9:30ean azalpen orokorrak (antzokian)
- Proiektuen inguruko azalpenak eta iritzia trukea taldeka (frontoian)
- 12:00etan hamaiketakoak
- Herritarren eta eragileetako ordezkarien arteko tertulia libre
- 13:00etan batzarrean itxiera

## Oharra:

Umezaindegi zerbitzua egongo da. Gaztelerazko taldeak ere izango dira.

**ALKARREKIN**  
soraluze eginez

**MARE**  
ILEAPAIRDEGIA

ESTETIKA  
SOLARIUM

Erribal kalea 1, beheko  
Tel.: 943 75 14 89  
20090 SORALUZE

**IZAGUIRRE**  
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

## ELI LAKUESTAREN LIBURUA

# 60.000 argazkiko ondarea

Eli Lakuestaren bildumako 125 argazkirekin liburua argitaratu du Kontrargik. Eguaztean aurkeztuko dute eta Gaztañerre azokan jarriko dute salgai.

Eli Lakuestari eskainitakoa liburua Kontrargik Harpasuak sailean argitaratzen duen bigarrena da. 50. hamarkadatik 70.era bitarteko 125 argazki jaso dituzte; musika, dantza, kirol, erlijio ekitaldiak agertzen dira bertan, eta bitxikeriak ere bai: oilar borrokak, abadea txiza egiten, basurdeak zintzilik Txoko tabernan...

### Bildumarik handiena

Orain arte Kontrargik aztertu duen argazki bildumarik handiena da Lakuestarena. Bolunbururen bildumak 500 negatibo inguru bazituen, Lakuestatarren sendiak lagatako bildumak 60.000 ditu, eta orain arte aztertutakoa hamarren bat baino ez da, 6.000 inguru. Etorkizunean argazkiak digitalizatzen jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute.



Dantza solte txapelketa Plaza Berrian  
Soinujolea: Imanol Lejardi.

### “Orain arte aztertutakoa bildumaren hamarren bat baino ez da”

Ezagutzen diren gainerako argazki bildumez galdetuta, Pepe Crotijorena eta Berruetarena nabarmendu dituzte, eta azken urteotan Pil-pileanek osatu duena ere bai. Kontrargiren helburua da, “argazkiak digitalizatu eta hurrengo belaunaldiek eskura izan ditzaten ziurtatzea, herriaren historia

kontatzen dutelako. Noizbait elkarre desagertuko balitz, gure artxibo guztiak udaletxearen esku lagako ditugu”. Bestalde, gero eta gehiago ei dira argazkiak eskaneatzeko eramaten dizkieten herritarrek.

### “Hurrengo belaunaldiei herriaren historia transmititzeko modua da”

### Salgai azokan

Kontrargik mila ale inprimatu ditu eta Gaztañerre azokan jarriko ditu salgai, 10 euroko prezioan. Azokaren ostean, Gabolatseko estankoan, Iratxo goxodendan eta Eibarko lakuestatarren optikan eskuratu ahal izango dira.

Emakume kuadrila  
Maritxu Ondarra, Margarita Albeniz, Irene Maiztegi, Maria Pilar Iñarra, Kateriñe Iñurrieta eta Maria Felisa Alberdi.



Gorpuzti prozesioa (1964-05-28)







### Eli Lakuesta Gorosabel

Soraluze, (1929-2000). Optikari eta argazkilaria profesionala. Oso pertsona ezaguna izan zen herrian.

### Lana eta pasioa

Barru-barrutik ataratzen jakuzen hitzetatik esan ahal dogu, oso familikua zala eta lagunena lagun. Hitz gutxitan, ezin definitu hain haundia izan zan gizasemia, bai gurekiko, etxeoketik, eta inguratzen zuen guztiarekiko. Injustizien aurrean tinkoa eta askatasunaren maitalea.

Begi aurrean zuen guztia betikotu nahi izan zeban eta halaxe egin ere. Etxeko, lagun, ingurune, gertakari eta gertakizun, guztiei argazkiak eginez. Euskal Herritik desterratu izanak ere ez zuen bere argazkilaria lana eta pasioa geldiarazi eta Andaluzian, Jaenen ere jardun zeban. Berak hala nahiko zeban eta herri memoriara bideratuko dogu bere ondare hau, iraganak etorkizuna eraiki dezan. Etxekoek, harrotasunez idazten dittugu hitz hauek, maitte zaittugu Eli Lakuesta Gorosabel.

*Eliren sendia*



Luis Eguren abadea



Agustín Ibarburen Txoko tabernako nagusia.



### Eskubaloit taldea (1974)

Zutik (ezkerretik eskumara): Javier Aierra, Jesus Intxaurre, Gotzon Elizburu, Luis Fernando Bolunburu, Carlos Astigarraga, Alberto Arizaga, Roberto Uriarte eta Goio Trebiño.

Makurtuta (ezkerretik eskumara): Humberto Uzin, Luis Angel Gallastegi, Jon Lamariano, Aitor Aristi, Jesus Uzin, Oskar Lizarralde eta Aitor Iraeta.

“Interes turistikoaren izendapena” duten guneetako komertzioek jai egun batzuetan zabaltzea baimenduko lukeen dekretua prestatzen dihardu Jaurlaritzak. Herriko merkatariek (EAEkoekin batera) sinadura bilketa hasi dute.

## Zer iruditzen zaizu merkatariek jai egunetan zabaltzea? Eta eguneroko ordutegia ?



Igor Garmendia

Egutegia liberalizatzearen kontra nago, ze baldintza horietan txikiak ez dute handien kontra lehiatzerik. Nik errelebotan lan egiten dut eta ez daukat arazorik herriko komertzioen ordutegiarekin.



Maialen Elizburu

Eguneroko bizimodua asko aldatu da, eta iruditzen zait horretarako egokitze-ko modu egokiena izango litzatekeela herriko merkatarien artean adostea ezarri beharreko egutegia eta ordutegia. Nik ez daukat arazorik ordutegiarekin, baina bizi garen modua ikusita, zer pentsatua badago.



Leonardo Hernandez

Guk herrian erosten dugu eta ahalegintzen gara ahal dugun guztietan horixe egiten, badakigulako herrian zerbitzuak mantentzeko bidea dela. Hortik aurrera, nik jubilatua izanda ez daukat inolako arazorik oraingo egutegi eta ordutegiarekin.



Maialen Oregi

Uste dut egutegiak araututa egon behar duela, baina eremu turistikoekin zalantza gehiago izango nuke. Ordutegiari dagokionez komertzio bakoitzak bere moldatzeko aukera izan behar luke. Nik iluntzean ezin dut arrainik erosi herrian eta dendak itxita baldin badaude merkatal zentrora jo behar.

### Lehiaketa

Zein da?



Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atera eta hurrengo barixaku eguerdian egiten dugu.

**Saria:**

Eli Lakuestaren argazki liburu bi



**Aurreko aleko erantzuna**

Etzoz Larrañaga, irakaslea

**Irabazlea**



Garazi Aizpurua

Deitu **943 75 13 04** edo e-maila bidali **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.





**Altzairuen fabrikazioa:**

- Bainugelek
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Baruko altzairuak

*Disainua eta Formena*  
 Poligono Amillago, nº 5  
 Tel.: 943 76 99 85  
 20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
 Fax.: 943 76 05 17



## Motzean

### Jokin Muñozek Bartzelonako Ironmanean parte hartu zuen

Jokin Muñozek bere lehen Ironmana egin zuen Bartzelonan, joan den urriaren 5ean. 3,8 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika egin zituen. Guztira, 2600 lagunek parte hartu zuten eta Muñoz605.postuan sailkatu zen, bere kategorian 45.na, proba osoa 10 ordu eta 27 minututan burutu zuen. Igerian ordubete eta laurden eman zuen, bizikletan 5 ordu eta 22 minutu, eta 3 ordu eta 43 minutu korrika.



### 135 lagun batu zituen Finalista egunak

Eguraldia lagun, mendi itzuli txiki bat egin zuten lehenengo, Estaziñotik Txurrukara, eta handik San Andresera. Ondoren igotako mendien arabera saritu zituzten umeak, eta 52 mendizalek jantzi zuten domina. Osteko babajanean 135 lagun elkarrekin ziren eta bazkalostean, batzuk pelotan, beste batzuk kantuan, talde-jokoetan... giro paregabea agurtu zuten, martxora bitartean, mendi irteeren egutegia.



## Euskara eta futbola uztartzeko hitzarmena sinatu dute Sorak eta Udalak

Futbol-taldeak hiru konpromiso hartu ditu bere gain: barne eta kanpo komunikazioa eta funtzionamendua euskaraz izatea, entrenatzaileak Futbol Eskolako Eskua egitasmoan parte hartzea eta entrenamendu eta partidetan euskara gailentzea, benjamin eta alebin mailetan batez ere. Hitzartutakoa betez gero, 3000 euroko dirulaguntza jasoko du futbol taldeak. Ligari dagokionean, seigarren jardunaldiaren ondotik, bosgarren dago Preferentea, 11 puntu batuta, Amaiak Bat dago lidertzan 15ekin. Zapatuan Mondra taldearen aurka lehiatuko dira, 16:30ean Ezozin. Erregionala ere bolada onean da, Egoitz Placenciak sartutako bi golei esker Urkikoei 2-1 irabazi eta gero. Eibartarrak taldearen atzetik laugarren da sailkapenean, 6 puntu batuta. Domekan Urkomendiren (12 puntu) aurka arituko dira 13:30ean, Eibarren.



Alkatea eta Sorako lehendakaria hitzarmena sinatzen

## Herri-kirol desafioa egin dio gazte asanbladak Bergarako gaztetxeari

Gaztetxeak antolatuta, herriko gazteek eta Bergarako gaztetxeko ki-deek desafioa jokatuko dute Gaztañerre azokan, 11:30ean Plaza Barrixan. Hamar laguneko bi taldetan banatuta (5 neska eta 5 mutil) elkarren aurka arituko dira zein baino zein, herri kirolak praktikatzen. 5 modalitatetan neurtuko dituzte indarrak: trontzan, lokotxak batzen, ingudean, txingetan eta sokatiran.



lazio herri kirol proba

## Kiroldegiko ordutegi berria erabakitzeko proba-epea azaroan, debalde

Kiroldegia goizean lehenago ireki edo eguerdian zabalik mantendu behar den erabakitzeko azaroan zehar erabilera datu objektiboak jasoko dituzte, proba-epe moduan. Hilaren 1etik 30era bitartean, igerilekua 7:00etan zabalduko da eta 20:30ean itxi; gainontzeko instalazioak 7:00etatik 21:30era egongo dira zabalik. Tarte horretan bazkide ez diren herritarrek ere erabili ahal zango dituzte kiroldegiko instalazioak, dohainik.

Jatearen plazera. bertatik bertara

**Batzoki**  
JATEETXEA

ogihitartekoak eguneko menua  
asteburuko kartak arrozak

Erreserbak: 943 75 20 16

**JUAN MARI**  
ARRINDEGIA

943 75 24 40  
MERKATU PLAZA

ENBERAK ZINGO PLAZA/IRIARREKI  
GUSAN ULIBOZKO KONFLUENTZETIKO

## Pernando plaentxiarra berbetagai martitzenean Elexpurrekin



Pernando Plaentxiarra liburuaren azala

Pernando amezketarra jaio zeneko 250. Urteurrena ospatu den honetan, *Pernando plaentxiarra* (Jon Etxaide, 1957) liburuaren eta herriko umorearen nondik

norakoen inguruan jardungo dute martitzenean (19:00etan Gaztelupen). Juan Martin Elexpuru idazle bergararrarekin batera. Liburuaren jatorriaz jardungo dute eta Juan San Martinek jasotako hainbat txiste errezitatuko dituzte.

### Idazleak eta musikariak

Azaroan zehar hainbat idazle eta musikari etorriko dira Gaztelupera. Martitzenetako literatur solasaldien barruan, azaroaren 11n Josu Landak Miguel Hernandez poeta espainiarraren testu euskaratuak abestuko ditu, azaroaren 18an Badok euskal kantagintzaren webgunea aurkeztuko du Jon Eskisabel kazetariak eta azaroaren 25ean Iñigo Aranbarri etorriko da Maiatza liburuaren inguruan berba egitera. Domeketako musika emanaldietan berriz, Mikel Inunziaga zornotzarrak INUN diskoa ekarriko du. Hurrengo hiru asteetan blues kontzertuak izango dira eta azaroaren 30ean Morau eta Bañardok Arrainentzako himnoak diskoa aurkeztuko dute.

## “Fenix 11 23” eta “Ocho apellidos vascos” azaroko zine karteldegian



“Ocho apellidos vascos” pelikulako fotograma

Azaroaren 13an katalanaren erabilera, Asarea eta terrorismo delitua uztartzen dituen “Fenix 11 23” proiektatuko dute “Ostegunetako pelikula” emanaldien barruan. “Ocho apellidos vascos” pelikula berriz, azaroaren 27an ikusi ahal izango da antzokiko pantaila handian. Martxoan estreinatua eta hilabetean 5,3 milioi pertsonen ikusi zuten señorito andaluziarraren eta neska abertzalearen arteko maitasun istorioa. Soraluzetar bat ere ageri da pelikula honetan, Inma Matute. Arduradunek aurreratu dutenez, “Loreak” Zinemaldian aurkeztu berri den euskal pelikula abenduan eskainiko dute. Emanaldi guztiak 21:30ean hasiko dira eta sarrerak euro bat balio du.

*Iriztia*



*Juan Martin Elexpuru*

## Umorearen artea

Ezta zurikerietan ibiltzarren baina Plazentziako euserria Bergararik entzunda beti pentsau izan jat (eta ez neri bakarrik) oso musikala eta gozua, halako patxara eta lasaitasun bat transmititzen dabena, Sagarrerrekako uran zurrumurruan modukua. Gaur dibersiño gehixenak “begizkuak” dien moduan, garai baten “berbazkuak” zien nagusi: zeñek gizur haundixagua bota, erantzun zorroztzagua emon, zeñi adarra hobeto jo, zirixa sartu... guzti hau deporte edo arte moduan hartzen zan, eta oindio hartzen da zorionez.

**“Barre pixkat egin eta tertulixa gozuan egotera juango naiz plazentziara”**

Beti bihar izaten da baten bat inguruan bromarako edo adarra joteko eta horretarako zein lagun hoberik plazentziarrak baino. Zineko edo zirkoko bikote komiko zelebriak ekartzen dost gogora Eibar-Plazentzia parejak. Eta ez dauka gusto berdiña plaentziarren txistiak eta “va un guipuzcoano” edo “va uno de Bilbao” hasten danak. Sagar-errekako ura eta Nerbioikua eratia moduan da.

Iturri horretatik edan, barre pixkat egin eta tertulixa gozuan egotera juango naiz martitzenian plazentziarrongana *Fernando plaentxiarraren* liburu besapian hartuta.

**Etxabe Harategia**  
Euskal txahalkia Bildotsa  
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak  
T. 943 75 23 75

**AURREZTU ENERGIA**  
EGUZKI PLAKAK eta AEROTERMIA SISTEMA

Berotu ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontanería **San Andres** iturgintza

639 179 696 • sanandresturgintza@gmail.com



## Motzean

### 80 urtetik goragokoei omenaldia

Azaroaren 15ean Manuel Galarraga eta Mercedes Pintado omenduko dituzte Itxaropenan, 80 urtetik goragokoak omentzeko bazkarian. Aurreko astean haragi goxoenen txapelketa antolatu zuten, eta Porfi Casasek eta Natalia San Josek jaso zuten lehen saria, Avelino Gamazok eta Avelino Ramosek bigarrena eta Maria Luisa Martinek eta Reyes Solanak hirugarrena.



### Kontrargi argazki rallya azaroaren 23an

Herrian jasotako irudiekin XXVI. argazki-rallya ospatuko da hilaren 23an, domekan. Kontrargikoek goizeko 8:30etik 9:30era bitartean zabalduko dute izen-ematea eta orduan jakinaraziko dituzte landu beharreko gaiak zeintzuk izango diren, Etxaburueta kalean duten lokalean.

### Zinea euskaraz, jolasak eta tailerrak domeketarako

"Domekak aterpean" egitasmoari helduko diote aurten, bigarrenez, Kukumixok eta Atxolin guraso elkarteak. Azaroaren 16tik martxora bitartean haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleei zinema euskaraz ikusteko eta Kukumixorekin jolasean aritzeko aukera eskaini nahi dute domeketan. Atxolineko bazkide ez direnek 20 euro ordaindu beharko dituzte eta izen-ematea azaroaren 5a baino lehen egin behar da, ikastetxean.

## Kantuzaleendako ate irekiak Santa Zezilia ospakizunetan

Ezoziko Ama abesbatzak herriko kantuzaleei abesbatza ezagutarazi eta bere entseguetan parte hartzeko eskaintza berezia egitea erabaki du.



Abesbatzako kideak entsaioan.

Azaroaren 22an, Santa Zezilia egunez, abesbatzakoek musika-eskolaren 25. urteurrenako ospakizunetan parte hartuko dute. Abesbatzako kideek herriko kantuzaleei dei egin nahi diete eurekin batera kantura ateratzeko. "Ahalik eta abeslari gehien" batu nahi dituztela adierazi dute Santa Zezilia eguna (musikarien zaindaria) eta musika eskolaren urteurrena ospatzeko. Lehenago abesbatzan jardun duten pertsona eta kantuzale guztiei gonbidapen berezia egiten diete.

### Entsaio irekiak

Santa Zezilia eguneko saioan parte hartu nahi ez edo ezin dutenek ere entsegu irekietan parte hartzeko aukera izango dute.

Entsegu eta saio irekietan parte hartzeko ez da beharrezkoa musika ikasketak izatea. Nahikoa da kantuzalea izatea edo abesbatza barrutik ezagutzeko go-goia izatea. Abesbatzako kideen esane-

tan, merezi du "abesbatzan abesteak eta sentiarazten dituen emozioak" bizitzea.

### Ekimenak

Azaroak 15, zapatua  
- 12:30ean ENTSEGU IREKIA. Antzokian.

Azaroak 18, martitzena  
- 20:30ean ENTSEGU IREKIA. Antzokian.  
Entseguetan *Kantuz* eta *Nulla Amicitia sine musica* abestiak prestatuko dituzte musika eskolaren abesbatzarekin batera abesteko.

Azaroak 22, zapatua (Santa Zezilia Eguna)  
- 13:00etan KANTU EMANALDI BEREZIA KALEAN. Ezoziko Ama abesbatzak eta herriko kantuzaleek elkarrekin abestuko dute.  
- 20:00etan KONTZERTUA antzokian. Kanpezuko Ortzadar loar eta Ezoziko Ama abesbatzak elkarrekin.

Telebista digitala  
TDT katean aldatuta

**ELECTRONICA CRUZ**  
ANTENA KOLEKTIBO ETA PARABOLIKOAK

943 75 13 35 - 630 35 82 95 Santa Ana, 25 - Soraluze

**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Balategieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**

# Gaztañerre azoka 2014

## Azaroak 3, astelehena

### Subiranotasun energetikoaz hitzaldia

Goienar Kooperatibarekin.

19.00etan, Erakusketa Gelan

Antolatzailea: Alkarrekin Jasangarritasun lan taldea

## Azaroak 5, egueaztena

### Talo ikastaroa

18.30etan, Ibai Eder Elkartearen.

Izen ematea:

943751304 edo euskara@pilpilean.com

(Azaroaren 3a baino lehen)

Antolatzailea: Pil Pilean Euskaldunon Elkarte

### Liburu aurkezpena:

#### Eli Lakuestaren argazkiak

19.00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan

Antolatzailea: Kontrargi Argazki Taldea

## Azaroak 6, eguna

### Pintxo pote-tematikoa: Gaztañerre

19.00etatik 21.00etara

Antolatzailea: Soroluzeko Tabernariak

## Azaroak 8, zapatua

### AZOKA EGUNA

Artisau eta baserritarren azoka

## Azaroak 10, astelehena

### GAZTAÑERRE EGUNA

#### Gaztañerre eguna Nagusien Egoitzan

10.30ean Hitzaldi gastronomiko-kulturala:

"Gaztañerre azoka Soroluzen"

11.30ean Sagardo eta gazta dastaketa

13.00etan Bazkari Berezia

16.30ean Kantu jai, gaztaina erretzearekin

18.00etan Gaztaña dastaketa

Antolatzailea: Mesedetako Andra Mari Egoitza

#### Gaztañerre Plaentzia LHI-n

Baserri eta baratzen apainketa ikusgai

16.30ean Ikastetxeko Beheko patioan

Antolatzailea: Plaentxi LHI

#### Gaztañerre afaria, euskararen sutondoan

18:45ean Kantu-Jira Plaza Barritik

20:30ean Afaria Ibai Eder Elkartearen

Izen ematea:

943751304 edo euskara@pilpilean.com

(Azaroaren 7a baino lehen)

Antolatzailea: Pil Pilean Euskaldunon Elkarte

## Azaroak 11, martitzena

### Erleen inguruko mahaingurua

18.30ean, Zine Aretoan

Antolatzailea: Soroluzeko Erlelagunak

## Azaroak 15, zapatua

### Bizikale azoka

10.00etatik 14.00ak arte, Merkatarien azoka

18.30etatik aurrera, Pintxo lehiaketa

tabernariak eta merkatariak elkarlanean

Antolatzailea: Bizikale Elkarte

*Eta beste hainbeste saltsa herrixan gozagarri!*





## Zorion agurrak



Iraia De Los Santos eta Merche Perez  
Urrian 1ian eta irailan 23an  
Zorionak printzesak!!!



Nora Mendia Altuna  
Irailan 30ian 10 urte!  
Zorionak eder hori etxekuen partez.



Ekain Ariznabarreta Jauregi  
Urrian 19xan 2 urtebtxo!  
Zorionak eta patxo pila,  
etxeko danon partetik!



Unax Sodupe  
Urrian 29xan 9 urte!  
Zorioak mutil-haundi eta  
patxo potolo bat  
etxeko danen partez!



Nahia eta Eukene Mendia  
Azaruan 23an 8 urte eta urrian 2xan 6 urte!!  
Zorionak bikote! Muxu asko etxekuen partez!!



Irea Rascon Criado  
Azaruan 6xan 10 urte!  
Zorionak txapelduna,  
muxu haundi-haundi bat  
etxekuen partez!



Ariane Criado Martin  
Urrian 22xan 13 urte!  
Zorionak potxola!!  
Patxo haundi bat, familia  
patzian partez!



Mikel Inurrieta  
Urrian 8xan 58 urte!  
Familixakuen partez, oin arte  
moduan jarraitu eta  
muxu pila bat!



Ane Gabilondo eta Marina Gabilondo  
Urrian 29xan eta azaruan 9xan 16 eta 13 urte  
Etxekuen partetik zorion pila eta muxu haundi  
bana!



Iratz, Garazi eta Markel!  
Azaruan 10ian urtiak betetzen ditzuzelako,  
muxu haundi bana eta kilikili pila,  
maitte zaittuenen partetik!

## Jaiotakoak eta hildakoak



Maidar Argate Osa  
Izadi Larrañaga Elgeta  
Beñat Ugarte Larreategi  
Sara Mirate Dawod Muhammad Akhtar



Jose Luis Axpe Laskurain

### JESUS MARI JAUREGI GABILONDO

V. URTEURRENA

"Zure lagunok ez zaitugu inoiz ahaztuko.  
Beti gure bihotzean."

Lagunak

## Inazargari laburrak

- 6-8 pertsonentzat duplexa alokatzen da Luz Saint Souverren eski denboraldirako. Harremanetarako: **699 828526** (Josune).
- Pisua salgai Ezosi bidean. Interesdunek deitu **688803719** telefonora.



- Organotxoa salgai, 600 eurotan (negoziagarriak). Inprimagailua opari. Harremanetarako: Mari Karmen (943751304ra deitu).

Euskalzaletasunaren alde:





Iturria: Eli Lakuestaren bilduma (Kontrargi). Informazioa: Domentx Uzin.

## Herrian musika banda genueneko

Gerra aurrean karlistek zein liberalek musika banda bana zeukaten, San Ignacio banda eta Pazy Laborizenekoak hurrenez hurren. Bigarrena desagertu ostean, San Ignacio bandak jarraitu zuen 1963 urtean hori ere desegin zen arte. Garai hartan gizonezkoek bakarrik parte hartu ahal izaten zuten musika bandetan. Emakumezkoen presentzia geroago etorri zen herriko musikagintzan; Blue Bells, Trio Nubay eta Antz taldeak azaldu zirenean, Gayarre edo Soraluze zinemetan festibal eta antzezlanak eskainiz.

Labadero gainean (ezkerrekoa)

Zuzendaria: German Oregi.

Besteak: Lucio Oruesagasti, Satur Ormazabal, Badiola, Jose Luis Uzin, German Badiola...

Bolia parean (eskumakoa)

Ezkerretik eskumara: Jose Inazio Otxoa, Juan Azula, Santi Alberdi, Valentin Diaz, Paco Uzin eta Timoteo (atzean ageri direnak) eta Jesus Orbea.



**(B)**

Diru (B)eltza,  
gizarte-zerbitzu  
(B)eltzak



“A” gizartea  
lortzeko

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOK EKONOMIA  
GARDENERA

[www.ekonomiagardena.net](http://www.ekonomiagardena.net)

 **Gipuzkoa**  
BERRIA





>>> Ikusten duzu aldea?  
Zure esku ere badago

**ZURE SALTOKIA ETA ZU**

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



# Deskontuak

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskainiko dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **azaroaren 3tik 16ra** arte.

## LILURA ESTETIKA

**Garbiketa eta tratamendu faziala**

**29,9€**

Lehen  
46€

Deskontua  
%35



Izena: \_\_\_\_\_

Tel: \_\_\_\_\_

## BENITO ALTZARIAK

**Malgukidun koltxoi biskoelastikoa**

**476€**

Lehen  
793€

Deskontua  
%40



Izena: \_\_\_\_\_

Tel: \_\_\_\_\_

## IÑARRA HARATEGIA

**Biribila saltsan prestatzeko (txahalarena)**

**12,5€** kiloa

Lehen  
13,5€

Deskontua  
%7,5



Izena: \_\_\_\_\_

Tel: \_\_\_\_\_

## MONTSE FRUTADENDA

**Jaengo oliba olio (3 botila)**

**8,95€**

Lehen  
11,93€

Deskontua  
%25



Izena: \_\_\_\_\_

Tel: \_\_\_\_\_

## Zozketa

15 euroko 4 bono zozketatuko dira hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

NIK,  
HERRIAN

